



1

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu.

### A aukera

#### PROBA PRAKTIKOA

##### PROPOSAMENA:

Marraztu erakutsitako motiboetako bat objektiboki, kontuan hartuz bere egitura, objektuen arteko proportzioak eta marraztutakoaren eta paperaren arteko erlazioa.

##### PROZEDURA:

Egin proposatutako gaia, argi-ilunari eta tonuen erabilerari balioa emanaz, lerroak adierazi gabe.

##### TEKNIKA:

Aukeratu: ikatz-ziria, grafitoa, barra conte beltza, sangina.

##### EUSKARRIA:

Ingres papera, Basik papera edo antzeko kalitateko papera.

##### BALIOESPENA: Gehienez ere, 10 puntu

Aldeko faktoretzat hartuko dira ondorengo hauek:

- Marrazkiaren enkoadraketa paperean. Marraztutako formen eta forma horien arteko proportzioak. 3 puntu.
- Argi-iluna, tonu balioa. Tonuen erabilera zuzena azaldutako elementuen artean. 2 puntu.
- Lerroen eta orbanen kalitate plastikoak. 1,5 puntu.
- Irudiz adierazitako espazioaren koherentzia. 1,5 puntu.
- Ikonotasun gradu handia. 2 puntu.

### B aukera

#### PROBA PRAKTIKOA

##### PROPOSAMENA:

Azaldutako elementuekin egin konposizio berri bat, horien arteko proportzioa gordez.

##### PROZEDURA:

Erabili edozein elementu plastiko. (Lerroak edo Planoak)

##### TEKNIKA:

Aukeratu: ikatz-ziria, grafitoa, barra conte beltza, sangina...

##### EUSKARRIA:

Ingres papera, Basik papera edo antzeko kalitateko papera.

##### BALIOESPENA: Gehienez ere, 10 puntu

Aldeko faktoretzat hartuko dira ondorengo hauek:

- Marrazkiaren enkoadraketa paperean, eta marraztutako formen eta forma horien arteko proportzioak. 3 puntu.
- Argi-iluna, tonu balioa. Tonuen erabilera zuzena azaldutako elementuen artean. 2 puntu.
- Lerroen eta orbanen balio plastikoak. 1,5 puntu.
- Irudiz adierazitako espazioaren koherentzia. 1,5 puntu
- Konposizio balioak. 2 puntu.